

Sinesmen islamiarra

La comunidad creyente musulmana (Umma) dispone de un cuerpo de doctrinas propias, y se cuida de transmitir las a las nuevas generaciones, desde el hogar familiar y las escuelas. El sistema de creencias básicas del Islam no ofrece la complejidad que presenta el Cristianismo en su enseñanza doctrinal; pero sí se dan en el mismo un acento firme sobre sus contenidos, y se muestra como una fe expresada en afirmaciones y prácticas precisas.

Islam-ak bere "eskola-dotrinak" izan ditu garai eta herrialde ezberdinetan, sinesgaien berri emateko eta fedezkoak belauen berriei irakasteko (*kuttab* eskola). Nabaria da gizartean indarrean dagoen sinestunen elkartea nola agertzen den hirietako Meskita nagusian, "Ostiraleko Meskita" deituan, denentzat zinezko eskola den predikuaekin.

Sinesgaiak

Musulmanaren sinesmenean lehen pausoa ondoko hau da (*xahada* otoitza) : Allah-ren Jainkotasun bakarra aitortu (bestelako sasi-jainkorik gabe dena, eta nortasun bakarrekoa), eta horrekin batera Haren Profeta Mahomaren mezularitza ezagutu eta onartzea. Mahomarengandik jasotako mezua ulertu behar da, lehenik, eta bertatik atera bizitzarako ondorioak, betiere sinestunen elkartean ezagutu eta bizitzen direla.

Jainkoa nolakoa den ulertzean, Koranak garbi utzi zuen Allah ez zela, inondik ere, hirukoitza (Trinitatea), izaera eta nortasun bakarrekoa baizik. Bestelakorik sinetsi edo esatea da fededun musulmanak egin dezakeen

bekaturik astunena, *shirk* deitua alegia (K 4, 48; 39, 53). Allah-ri ez dagokio inolako beste izaera edo izaki elkaturik (*asoziaturik*). Islamak bekatu hauxe du Kristautasunari egotzen dion salakuntza larriena.

Allah-ren izaera izenlagun askorekin aditzera emanda dago Koranean, eta ehunen bat goitzen ematen zaizkio Haren izaera eta gizakiekiko jarrera aitortzeko: Errukiorra da Allah, Bihozbera, Lehena, Ezkutua, Azkena, Agerikoa, Txit Santua, Bake Osoa, Kreatzailea, Ahalguztiduna, Jakinduria, etab. Koraneko ia *sura* denak hasiera bera dute, "Allahren, Errukiorren, Bihozberaren izenean" hasten baitira.

Izadi-gizadiak, biak, Allah-ren kreazio dira, nahiz eta ezerezetik edo lehen materia batetik eginak izan daitezkeen. Bibliako "Hasiera" liburukoaren arabera emandako sinesgaia da hau. Jainkoa da gizakiari bizia eta bizitza ematen dizkiona, eta Haren baimenik gabe ezin du honek bere buruaz beste egin.

Fede jatorrean hil behar da (K 3, 132), nornahik ere heriotza dastatuko baitu (K 17, 35; 29, 57); baina heriotza mundu pertsonal berri baterako aukera da, azkenik Allah-



rengan izango baita hildakoa (K 29, 57). Eta Allah-ren bidean hildakoez segurtaturik dute beren hilondokoa: “Ez esan Allah-ren bidean borroka eginez hil direnak hilda daudela, bizirik baitaude, konturatzan ez bazarete ere” (K 2, 154).

Hilondoko eskatologia musulmanean bi gertakari dira batik bat aintzakotzat hartzen direnak: Azken Epaia (*yawn al-din*) eta Pizkundera (*bath*). Allah-k ezagutzen ditu gure munduko bideak eta gizaki bakoitzarekiko epaia izango du, eta hildakoak pizteko gai da Allah.

Beste munduan, Islamak ere baditu Paradisua (*jana*) eta Infernua (*nar, jahannam*), betierekoak izan daitezkeenak; biak ere xehetasun handiz deskribatzen ditu Koranak.

Sinesgaien gobernu

Islamak, Kristautasunak bezala, arazoak izan ditu bere sinesgaien nolakoa eta batasuna segurtatzeko: politikak, teologiako eztabaidek eta herri ezberdinen kulturek beren doktrina eta mundu musulmanaren sakabanaketa ekarri zuten, oso goiz.

Musulmanetako gehienak *sunitak* dira, hau da, Koranaz gain Mahomaren *hadith* edo ohitura ezagunak ere arautzat hartu zituztenak (guztiari *suna* deitzen zitzaiola). Sunismoa ikusi izan da, oro har, Islamaren ortodoxia jatorrena (edo nagusia) bezala. Horren

barruan, Eskola juridiko indartsuak egon dira, bakoitzak ere bere bide propioa urratu duena, betiere denak elkar berdintasun batez begiratzan dituztela.

Bestelako historia da xihismoarena, batez ere Iranen nagusitu dena, baina beste tokitan ere presente dagoena; VII. mendetik bertatik ekin zion bere bidari xihismoak. Ali-ren jarraitzaileak dira xihitak. Ali (†661) beharbada lehenengo konbertitua zen, eta Mahomaren lehengusu eta suhia, Mahomaren alaba Fatimarekin ezkondua. Bestalde, Ali eta Fatimaren Husein semea da xihiten martiri handia (†680), Irakeko Kerbalan bere santutegia duena.

Ortodoxia eta heterodoxia islamiarraren honetan, arazo politikoak eta dogmatikoak nahasita ageri zaizkigu, Islamaren jaiotzatik gaurdaino. Baina, hortik aparte, badago Islamaren Irakaskuntza ofizialean, adostasunik izateko eragozpena izan daitekeen instituzio-hutsunerik ere.

Doktrina-agintaritarako Erakunde onartu bateratzailea falta izan da Islamean: jakite eta itzal seguruko tradizio teologikoa eta maisugo jakituna dituzte; baina galduta da egun garai bateko kalifatuak ezar zezaketen batasun bortxatua, eta Aro Garaikideko eskakizun erlijiosoei erantzungo dien doktrinatresneria instituzional onartua falta da.

Joseba Intxausti